

Itxaso Díaz

<http://itxasodiaz.com/>

Bisorearen atzean

Aspaldi erabaki nuen neure burua naizen bezala aurkeztea, ikus-entzunezko *voyeur* baten gisa. Gure portaerek eta eguneroko ekintzek osatzen dituzten xehetasun txikiak begiestea eta erregistratzea maite duen norbait.

Kameraren atzean gozatzea begiesteak ematen duen plazeraren sintoma saihestezina da, eta errepresentazio bihurtzen da edizio-programen *timeline*etatik igaro ondoren. Bizitzako istorioak, ikus-entzunezko erretratuak esaten diet, protagonisten identitatea eratzen duten zenbait alderdi irudikatzen dituzten mikrobideo horiek.

Behaketa funtsezko gailu gisa, hala sorkuntzarako, nola kultura-kudeaketarako: hainbat gairen inguruko ikus-entzunezko lanak ikustaraziko dituzten plataformak sortzea.

Az Reality Lab proiektuaren zati gisa nire jarduerak (nire burua) irudikatzeko, kameraren atzean, bisorearen atzean agertzeko proposamenaren aurrean, bazirudien behaketaren logika hori zegoela, zeina nire jakin-minaren ondorioa baita, nor garen, nondik gatozen, zertan aritzen garen, nola sentitzen garen edo etorkizunari nola heltzen diogun jakiteko eta islatzeko dudaren kezka emaitza.

Bisorearen atzean dagoena ni naiz... zuen isla leial gisa.

